

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 743/2008/EE ERABAKIA, 2008ko uztailaren 9koa, ikerketa eta garapenean jarduten duten enpresa txiki eta ertainei laguntzeko, hainbat estatu kidek abian jarritako ikerketa eta garapen programan Erkidegoak izango duen parte-hartzeari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «Decisión n 743/2008/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 9 de julio de 2008, sobre la participación de la Comunidad en un programa de investigación y desarrollo, emprendido por varios Estados miembros, destinado a apoyar a las PYME que realizan actividades de investigación y desarrollo» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 201/58 de 30/7/2008*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 743/2008/EE ERABAKIA, 2008ko uztailearen 9koa, ikerketa eta garapenean jarduten duten enpresa txiki eta ertainei laguntzeko, hainbat estatu kidek abian jarritako ikerketa eta garapen programan Erkidegoak izango duen parte-hartzeari buruzkoa

(Testu egokia EEERI dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAKO PARLAMENTUAREN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak, eta bereziki, haren 169. artikulua eta 172. artikuluko 2. paragrafoa aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera ⁽²⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1982/2006/EE Erabakiak, 2006ko abenduaren 18koak, ikerketa, teknologia-garapen eta erakuspenerako Europako Erkidegoaren zazpigarren esparru-programari buruzkoak (2007tik 2013 arte) ⁽³⁾ (aurrerantzean «zazpigarren esparru-programa»), Erkidegoak zein partaidetza izango duen aurreikusten du hainbat estatu kidek abian jarritako ikerketa eta garapen-programetan, baita programa horiek gauzatzeko sortutako egituretan ere, Tratatuaren 169. artikulua xedatutakoaren arabera.

(2) Zazpigarren esparru-programan hainbat irizpide ezartzen dira 169. artikulua xedatutako baldintzetan ekimenak zein esparrutan jar daitezkeen abian zehazteko: Erkidegoko helburuekiko egokitasuna, ezarritako helburua argi zehaztea eta helburuak zazpigarren esparru-programaren arabera direla bermatzea, alde aurretiko oinarria izatea (egungo estatu mailako ikerketa-programak edo aurreikusitakoak), balio erantsia European, masa kritikoa bertan zehaztutako programa-kopuruari eta haien tamainari dagokionez nahiz programa horietan egiten diren jardueren antzekotasunari dagokionez; eta Tratatuak 169. artikulua izatea baliabide egokiena helburu horiek guztiak lortzeko.

(3) Kontseiluaren 2006/974/EE Erabakiak, 2006ko abenduaren 19koak, «Gaitasunak» izeneko berariazko programari buruzkoak, Europako Erkidegoaren zazpigarren esparru-programa, ikerketa, teknologia-garapen eta erakuspenera (2007-2013) garatzen duenak ⁽⁴⁾ (aurrerantzean «Gaitasunak» berariazko programa») ekimen bat jasotzen du enpresa txiki eta ertainentzako (ETE), 169. artikulua babesean, hain zuzen ere Tratatuaren 169. artikuluan xedatutako baldintzetan, estatu mailako ikerketa-programetan parte hartzen duten enpresa txiki eta ertainentzat. Aipatutako esparru hori ezin hobea da Erkidegoak parte hartzeko.

(4) 2004ko irailaren 24ko ondorioetan, Kontseiluak adierazi zuen oso garrantzitsua zela zazpigarren esparru-programaren funtzioa, Ikerketarako Europako Esparrua (IEE) bultzatzen baitzuen. Testuinguru horretan, aipatu zuen oso garrantzitsua zela IEEren eta gobernu arteko erakundearen (esaterako Eureka erakundea) arteko loturak estutzea.

(5) 2004ko azaroaren 25 eta 26ko ondorioetan, Kontseiluak adierazi zuen enpresa ertain eta txikiak oso garrantzitsuak zirela Europako hazkuntza eta lehiakortasunerako; eta beraz, estatu eta Europa mailako programen eraginkortasun eta osagarritasuna areagotu behar direla estatu kideek eta Batzordeak enpresa txiki eta ertainei laguntzeko. Kontseiluak Batzordeari gomendatu zion ikerketa-lanetan jarduten duten enpresa txiki eta ertainentzat goranzko eskema bat (*bottom up*) egiteko aukera aztertzea. Halaber, IEE garatu ahal izateko, aipatzen zuen garrantzitsua zela estatu-mailako programak koordinatzea ere. Kontseiluak estatu kideei eta Batzordeari gomendatzen zion elkarrekin lan egitea, era horretan Tratatuaren 169. artikulua aplikatzeko esparru-kopuru jakin bat zehazteko. Era berean, Batzordeari eskatu zion Erkidegoaren arteko lankidetzeta eta koordinazioa areagotzea, baita gobernu arteko egituren esparruan egindako jarduerak ere, bereziki Eureka erakundearekin egindako jarduerak, 2004ko ekainaren 18ko Eureka Ministerio Batzarrari erreferentzia eginez.

(1) 2008ko maiatzaren 29ko Irizpena (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko apirilaren 10ekoa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko ekainaren 23koa.

(3) L 412 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or.

(4) L 400 EO, 2006.12.30ekoa, 299. or.; bertsio zuzendua hemen: L 54 EO, 2007.2.22koa, 101. or.

743/2008/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 201/58, 2008/7/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(6) 2005eko martxoaren 10ean, EBko ikerketa-esparrurako laguntza-politikei buruzko orientabideak izeneko zientzia eta teknologiarri buruzko Ebazpenean ⁽¹⁾, Europako Parlamentuak gomendatu zien estatu kideei industria-berrikuntza sustatzeko zerga-pizgarriak eta bestelako pizgarriak jartzea, baita Eurekarekin dauden loturak sustatu eta enpresa txiki nahiz ertainekin dagoen harremana estutzeko ere. Horrez gain, Europako Parlamentuak aipatu zuen IEE egiteko modu bakarra Europar Batasunak ikerketarako baliabide gehiago ezartzea zela, era horretan, Europa, estatu eta eskualde mailako ikerketa-politiken arteko koordinazioa hobetzeko, bai edukiaren bai finantzaketaren ikuspegitik, eta estatu kideen barneko eta estatu kideen arteko koordinazioa hobetzeko, ikerketa-politikarako funts gehigarriak ezartzean. Europako Parlamentuak adierazi zuen askoz ere modu eraginkorrago eta koordinatuagoan erabili beharko liratekeela gainerako finantzaketa- eta laguntza-mekanismoak, horien artean Eureka, betiere Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzaren alde (aurrerantzean «I+G»). Halaber, estatu mailako ikerketa-programen arteko lankidetzaz handitzea bultzatu zuen, eta Batzordeari eskatu zion ekimenak abian jartzeko, Tratatuaren 169. artikuluan oinarrituta.

(7) 2003ko ekainaren 4an egindako jakinarazpenean, «Ikerketan inbertitu: Europarentzako ekintza-plana» izenekoan, Batzordeak aipatu zuen oso garrantzitsua zela enpresa txiki eta ertainek ikerketa eta berrikuntza-jarduerei laguntzeko zuzeneko neurrietan parte hartzea, parte-hartze hori funtsezkoa baita ekonomiaren segmentu handien berrikuntzarako gaitasuna bultzatzeko.

(8) Gaur egun, ez daude Europa mailan behar bezala koordinatuta estatu kide batzuek, banaka, estatu mailan I+G abian jarritako jarduerak, hain zuzen ere enpresa txiki eta ertainak egiten ari diren I+G jardueren laguntza ematekoak. Ondorioz, ikerketa eta teknologia-garapen eraginkor bat egin ahal izateko, ezin da Europa mailako planteamendu koherenterik egin.

(9) Hainbat estatu kidek erabaki dute Eurekaren esparruan “Eurostars” (aurrerantzean “Eurostars programa bateratua”) I+G programa bateratua sortzea, I+G jardueretan lan egiten duten enpresa txiki eta ertainen esparruan Europa mailako planteamendu koherente bat egin eta modu eraginkorrean jarduteko, era horretan I+G esparruan jarduten duten enpresa txiki eta ertainek administrazio- eta finantza-baliabideen masa kritikoa lortu ahal izateko, baita Europako hainbat estatutan eskuragarri dauden ezagutza espezializatu eta baliabide osagarriak konbinatu ahal izateko ere.

(10) Eurostars programa bateratuaren helburua da I+G esparruan jarduten duten enpresa txiki eta ertainen laguntza ematea: horretarako, estatu kideen artean beharrezkoa den Europa mailako lankidetzaz sortzeko esparru juridikoa eta antolakuntza-esparrua ezarriko da, edozein teknologia- edo industria-esparrutan, ikerketa aplikatu eta berrikuntza-jarduerak egiteko, betiere enpresa txiki eta ertainen mesederako. Eurostars programan parte hartzeko prest agertu dira Belgika, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Danimarka, Alemania, Estonia, Irlanda, Grezia, Espainia, Frantzia, Italia, Txipre, Letonia, Lituania, Luxenburgoko, Hungaria, Herbehereak, Austria, Polonia, Portugal, Errumania, Eslovenia, Eslovakia, Finlandia, Suedia eta Erresuma Batua (hemendik aurrera «estatu kide parte-hartzaileak»), baita Islandia, Israel, Norvegia, Suitza eta Turkia ere (aurrerantzean «gainerako estatu parte-hartzaileak»), eta adostu dute esparru horretan jarduerak era bateratuan koordinatzea eta egitea. Estatu horien parte-hartzearen balio globala 300 milioi eurokoa izango da gutxienez, proposatutako programaren sei urteko iraunaldian zehar. Erkidegoak egindako diru-ekarpena Eurostars programa bateratuan egindako diru-ekarpen publikoaren % 25 izan beharko da gehienez, eta ekarpena gutxi gorabehera 400 milioi euro ingurukoa da guztira.

(11) Eurostars programaren eragina handitzeko, Estatu kide parte-hartzaileek eta gainerako estatu parte-hartzaileek adostu dute Erkidegoak ere programa horretan parte hartu behar duela. Erkidegoaren partaidetza 100 milioi euroko diru-ekarpena izango da gehienez, Eurostars programaren iraunaldian zehar egin beharrekoa. Programa horrek zazpigarren esparru-programako helburu zientifikoak betetzen dituenez, eta programa horren esparrua “Gaitasunak” berariazko programaren barne dagoen “enpresa txiki eta ertainen onurarako ikerketa” gaiarekin bat datorrenez, Erkidegoaren diru-ekarpena egiteko gai horretarako esleitutako kontusailak erabiliko dira. Beste finantzaketa-iturriak ere erabil daitezke horretarako; esaterako Europako Inbertsio Bankua (EIB), hain zuzen ere EIBk eta Europar Batzordeak, 2006/974/EE Erabakiko III. eranskinean xedatutakoari jarraiki, Elkarbanatutako Arriskuko Finantzaketa Tresnaren bidez.

(12) Diru-laguntza eman baino lehen, bete beharreko baldintza nagusia da estatu mailan abian jarritako I+G jardura eta programak modu bateratuan gauzatzeko ardura duten estatu-mailako erakundeek konpromiso formala hartu behar dutela, Eurostars programa bateratua modu bateratuan gauzatzeko eta programa horretan ekarpenak egiteko.

(13) Estatu mailako ikerketa-programak modu bateratuan gauzatzeko, gauzatzeko-egitura espezializatu bat eduki edo sortu behar da, “Gaitasunak” berariazko programan xedatutakoari jarraiki.

(14) Estatu kide parte-hartzaileek erabaki dute Eurostars programa gauzatzeko egitura horren esku uztea.

(15) Gauzatzeko-egitura espezializatua Erkidegoko diru-laguntzaren hartzalea izan behar da, eta Eurostars programa bateratua modu eraginkorrean gauzatzen dela bermatu behar du.

(1) C 320 E EO, 2005.12.15ekoa, 259. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(16) Erkidegoak diru-ekarpena egiteko, ezinbesteko baldintza da estatu kide parte-hartzaileek nahiz gainerako estatu parte-hartzaileek konpromisoa hartzea baliabideak emateko, eta beren diru-ekarpenak behar bezala ordaintzea.

(17) Erkidegoak diru-ekarpena egin baino lehen, Batzordeak (Europako Erkidegoaren izenean) eta gauzatze-egitura espezializatuak hitzarmen orokor bat egin beharko dute, non Erkidegoaren diru-ekarpena nola erabiliko den modu xehatua azaldu behar baita. Jarraian, hitzarmen horren ondorio bat egin beharko da. Hitzarmen orokorrak Erkidegoaren finantza-interesak babesteko beharrezko xedapenak eduki beharko ditu.

(18) Erkidegoak egindako diru-ekarpenak sortutako interesak ukitutako diru-sarreratzat jo behar dira, Kontseiluaren 2002ko ekainaren 25eko 1605/2002 (EE, Euratom) Araudiak, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrean aplikagarriak den finantza-araudia onartzen duenak, 18. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera ⁽¹⁾ (aurrerantzean “Finantza Araudia”). Ondorioz, Batzordeak aukera du Erabaki honetan aipatutako gehieneko diru-ekarpena handitzeko.

(19) Erkidegoak eskubidea izango du bere diru-ekarpena gutxitu, kendu edo ezabatze, baldin eta Eurostars programa bateratua modu ezegokian, zati batean edo berandu gauzatzen bada, edo estatu kide parte-hartzaileek eta gainerako estatu parte-hartzaileek Eurostars programa bateratua beren diru-ekarpenak egiten ez badituzte, edo diru-ekarpen horiek zati batean edo berandu ordaintzen badituzte; Erkidegoak eta gauzatze-egitura espezializatuak egin beharreko hitzarmenean aurreikusiko diren baldintzen arabera.

(20) Eurostars programa modu eraginkorrean exekutatzeko, diru-laguntzak eman behar zaizkie Eurostars programa bateratua proiektu bidez lanean ari diren partaideei (aurrerantzean “Eurostars proiektuak”), proposamenak egiteko deialdiak modu zentralizatuan hautatu ondoren. Diru-laguntza horiek eta horien ordainketak modu garden eta eraginkorrean egin behar dira. Estatu mailako finantzaketa-organismoen eta gauzatze-egitura espezializatuaren artean egindako hitzarmenean zehaztutako epean egin beharko dira ordainketa horiek. Gauzatze-egitura espezializatuak estatu kide parte-hartzaileei eta beste estatu parte-hartzaileei proposatu diezaieke hautatutako Eurostars proiektuei ordainketak egitea, baita, beharrezkoa bada, finantzaketa globala egitea ere.

(21) Proposamenen ebaluazioak aditu independenteek egin behar dituzte, modu zentralizatuan. Modu zentralizatuan onartu behar da proposamenen sailkapen-zerrenda, eta izaera loteslea du Erkidegoko diru-ekarpenetako funtsak eta Eurostars proiekturako aurrekontu nazionalak esleitzeko orduan.

(22) EBren diru-ekarpena zeharkako kudeaketa zentralizatuaren esparruan kudeatu behar da, Europar Erkidegoetako aurrekontu orokorrean aplikagarria den Finantza Araudia onartzen duen Kontseiluaren 1605/2002 Araudia (EE, Euratom) garatzeko arauari buruzko Batzordearen 2002ko abenduaren 23ko 2342/2002 (EE, Euratom) Araudiaren eta Finantza Araudiaren arabera ⁽²⁾ (aurrerantzean “garapen-arauak”).

(23) Hautatutako Eurostars proiektu bakoitzerako, modu kolektiboan eman beharko dute I+G esparruan jarduten duten enpresa txiki eta ertainek partaide guztien jardueri buruzko gutzirako kostuen gehiengoa.

(24) Edozein estatu kide izan behar du aukera Eurostars programa bateratua parte hartzeko.

(25) Zazpigarren esparru-programaren helburuen arabera, zazpigarren esparru-programari edo beste estatu batzuei lotutako estatuek aukera eduki behar dute Eurostar programa bateratua parte hartzeko, baldin eta partaidetza hori dagokion nazioarteko hitzarmenean aurreikusita badago eta Batzordea nahiz estatu kide parte-hartzaileak eta beste estatu parte-hartzaileak ados badaude.

(26) Zazpigarren esparru-programak xedatutakoaren arabera, Erkidegoak eskubidea izan behar du Eurostars programa bateratua egin beharreko diru-ekarpenari buruzko baldintzak zehazteko, hain zuzen ere zazpigarren esparru-programara lotutako edozein estaturen parte-hartzeari dagokionez edo, Eurostars programa bateratua gauzatzeko ezinbestekoa balitz, programa gauzatzen den bitartean beste edozein estatu sartu behar bada, betiere Erabaki honetan xedatutakoa betez.

(27) Irregularitasun eta iruzurrik ez gertatzeko beharrezko neurriak hartu behar dira, eta galdutako funtsak edota akats baten ondorioz gaizki ordaindu edo erabilitako funtsak errekuperatzeko beharrezko pausoak eman behar dira Kontseiluaren 2988/95 (EE, Euratom) Araudiak, 1995eko abenduaren 18koak, Europar Erkidegoko finantza-interesen babesari buruzkoak

(1) L 248 EO, 2002.9.16koa, 1. or. Azken aldiz, Batzordearen 1525/2007 [EE] Araudiak (L 343 EO, 2007.12.27koa, 9. or.) aldatu zuen Araudia.

(2) L 357 EO, 2002.12.31koa, 1. or. Azken aldiz, 478/2007 [EE, Euratom] Araudiak (L 111 EO, 2007.4.28koa, 13. or.) aldatu zuen Araudia.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

xedatutakoaren arabera ⁽¹⁾; Kontseiluaren 2988/95 (Euratom, EE) Araudiak, 1996ko azaroaren 11koak, Europako Batzordeak, Europar Erkidegoen finantza-interesak babesteko *in situ* egin beharreko kontrol eta egiaztapenei buruzkoak ⁽²⁾; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1 1073/99 Araudiak (EE), 1999ko maiatzaren 25ekoak, Iruzuraren Aurkako Europako Bulegoak egindako ikerketei buruzkoak ⁽³⁾, xedatutakoaren arabera.

(28) Ezinbestekoa da Eurostars programa bateratuaren esparruan egindako ikerketa-jarduerak funtsezko oinarri etikoak errespetatzea, bereziki Europar Batasunaren Tratatuaren 6. artikuluan eta Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutunean zehaztutakoak, baita genero-ikuspegiaren eta genero-berdintasunaren integrazioa sustatzen duten oinarriak ere.

(29) Batzordeak programaren iraunaldiaren erdian ebaluazio bat egin beharko du, I+G jardueretan lan egiten duten enpresa txiki eta ertainek Eurostars programa bateratua sartzeko duten gaitasuna neurtzeko, baita programa horren gauzatzearen kalitate eta eraginkortasuna neurtu eta helburuak lortzeko egindako bidea ikusteko ere. Horrez gain, Batzordeak azken ebaluazio bat ere egin beharko du.

(30) Eurostars programa bateratuaren gauzatzearen egiaztapena eraginkorra izan behar da, eta ez dizkie beharrezkoak ez diren zamak ezarri behar programako partaideei, bereziki enpresa txiki eta ertainei.

(31) Gauzatze-egitura espezializatuak beren emaitzak jakinaraztera eta hedatzera animatu behar dira Eurostars proiektuetako partaideak, era horretan informazio hori publikoki eskuragarri egon dadin.

ERABAKI HAU HARTU DUTE:

1. artikulua

1. Zazpigarren esparru-programa gauzatzeko, Erkidegoak diru-ekarpena egingo du Eurostars programan, hain zuzen ere Belgika, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Danimarka, Alemania, Estonia, Irlanda, Grezia, Espainia, Frantzia, Italia, Txipre, Letonia, Lituania, Luxenburgua, Hungaria, Herbehereak, Austria, Polonia, Portugal, Errumania, Eslovenia, Eslovakia, Finlandia, Suedia eta Erresuma Batua (estatu kide parte-hartzaileak), nahiz Islandia, Israel, Norvegia, Suitza eta Turkiak (gainerako estatu parte-hartzaileak) batera abian jarritakoan.

2. Erkidegoak estatu kide parte-hartzaileek eta gainerako estatu parte-hartzaileek benetan egindako diru-ekarpenen herenari dagokion diru-ekarpena egingo du gehienez, betiere zazpigarren esparru-programak irauten duen bitartean 100 milioi euroko gehienezko muga gainditu gabe, eta I. eranskinean ezarritako printzipioei jarraiki.

3. Erkidegoaren diru-ekarpena egiteko, "Gaitasunak" berariazko programako "enpresa txiki eta ertainen onurarako ikerketa" gairako esleitutako Europar Batasuneko aurrekontu orokorreko kontusailak erabiliko dira.

2. artikulua

Erkidegoak diru-ekarpena egiteko, baldintza hauek bete beharko dira aldezturik:

a) Estatu kide parte-hartzaileek nahiz gainerako estatu parte-hartzaileek frogatu beharko dute abian jarri dela Eurostars programa bateratua, I. eranskinean azaltzen den moduan.

b) Estatu kide parte-hartzaileek eta gainerako estatu parte-hartzaileek, edota estatu kide parte-hartzaileek eta gainerako estatu parte-hartzaileek izaera juridikodun gauzatze-egitura espezializatu bat ezarri edo izendatu beharko dute. Egitura horrek Erkidegoak egindako diru-ekarpena jaso, esleitu eta egiaztatu egin behar du zeharkako kudeaketa zentralizatuaren esparruan, Eurostars programa gauzatu eta Finantza Araudiko 54. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian eta 56. artikuluan nahiz garapen-arauetako 35. artikuluan, 38. artikuluko 2. paragrafoan eta 41. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

c) Erabaki honetako II. eranskinean xedatutakoari jarraiki, gobernu-eredu egoki eta eraginkorra ezarri behar da Eurostars programa bateraturako.

d) Gauzatze-egitura espezializatuak modu eraginkorrean egin behar ditu Eurostars programaren jarduerak, I. eranskinean zehaztutakoak. Horretarako, diru-laguntzak jasotzeko proposamenak egiteko deialdiak antolatu beharko dira.

(1) L 312 EO, 1995.12.23koa, 1. or. Batzordearen 1233/2007 [EE] Araudiak (L 279 EO, 2007.10.23koa, 10. or.) aldatu zuen Araudia.

(2) L 292 EO, 1996.11.15koa, 2. or.

(3) L 136 EO, 1999.5.31koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

e) Estatu kide parte-hartzaileek eta gainerako estatu parte-hartzaileek konpromisoa hartu behar dute Eurostars programa bateratuaren finantzaketan parte-hartzeko, eta diru-ekarpen horiek ordaindu egin behar dituzte, bereziki Eurostars programa bateratuaren esparruan antolatutako proposamen-deialdietan hautatutako partaideen finantzaketarako.

f) Erkidegoan estatu mailako diru-laguntzetarako arauak bete beharko dira eta, bereziki, ikerketa, garapen eta berrikuntzarako EB mailan ezarritakoak ⁽¹⁾.

g) Bikaintasun zientifiko maila handia dagoela bermatu beharko da, baita oinarri etikoak betetzen direla ere, betiere zazpigarren esparru-programako oinarri nagusiak, generoaren eta genero-berdintasunaren ikuspegitik integrazio-oinarriak eta garapen iraunkorrerako oinarriak betetzen direla bermatuz.

h) Eta azkenik, Eurostar programa bateratuaren esparruan egindako jardueretan sortutako jabetza intelektualeko eskubideak arautzen dituzten xedapenak ezarri behar dira, baita estatu kide parte-hartzaileek eta gainerako estatu parte-hartzaileek estatu-mailan abian jarritako ikerketa eta garapen-jarduera eta -programak arautzeko xedapenak ere, era horretan ezagutza-sorkuntza sustatu eta horien zabalpen eta erabilera bermatzeko.

3. artikulua

Eurostars programa gauzatzean, II. eranskinean zehaztutako modu zentralizatua erabiliko da Eurostars proiektuetako parte-hartzaileei diru-laguntzak emateko, betiere diru-laguntzak eskatzeko deialdiak egin ondoren. Diru-laguntzak esleitzean, tratu-berdintasun eta gardentasunaren printzipioak bete beharko dira. Diru-laguntzak oinarri zientifikoaren arabera emango dira, enpresa txiki eta ertainen ezaugarri bereziak eta zein talderako den kontuan hartuta. Horrez gain, kontuan hartuko dira Europa mailan duen eragin sozio-ekonomikoa eta programaren helburu orokorreko egokitasuna ere, I. eranskinean xedatutako printzipio eta prozeduren arabera.

4. artikulua

Honako arau eta modalitate hauek guztiak ezarriko dira Batzordearen (Erkidegoaren izenean) eta gauzatze-egitura espezializatuaren artean egingo den hitzarmenaren bidez, baita urteko finantzaketa-hitzarmenaren bitartez ere: Erkidegoaren diru-ekarpen modalitateak, finantza-erantzukizunari eta jabetza intelektualaren eskubideei buruzko arauak, eta emakidan aplikagarriak diren garapen-arauak, gauzatze-egitura espezializatuak ezarrita, hirugarrenei diru-laguntzak emateko.

5. artikulua

Finantza Araudiko 18. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, erasandako diru-sarreretat joko dira Erkidegoak Eurostar programarako esleitutako diru-laguntzen ondorioz sortutako interesak. Ondorioz, Batzordeak aukera du Erabaki honetako 1. artikuluan aipatutako gehienezko diru-ekarpena handitzeko.

6. artikulua

Erkidegoak eskubidea izango du bere diru-ekarpena gutxitu, kendu edo eteteko, baldin eta Eurostars programa bateratua modu ezegokian, zati batean edo berandu gauzatzen bada, edo estatu kide parte-hartzaileek eta gainerako estatu parte-hartzaileek Eurostars programa bateratua beren diru-ekarpenak egiten ez badituzte, edo diru-ekarpen horiek zati batean edo berandu ordaintzen badituzte, betiere estatu kideek eta gainerako estatu parte-hartzaileek Eurostars programara esleitutako funts publikoen eta programaren benetako gauzatzearen arabera, Erkidegoak eta gauzatze-egitura espezializatuak egin beharreko hitzarmenaren aurreikusiko diren baldintzen arabera.

7. artikulua

Eurostars programa bateratua gauzatzean, estatu kide parte-hartzaileek nahiz gainerako estatu parte-hartzaileek Erkidegoen finantza-interesak babesteko beharrezko neurri legegile, arauemaile eta administratiboak hartuko dituzte, baita beharrezkoa den beste edozein arau ere. Bereziki, estatu kide parte-hartzaileek nahiz gainerako estatu parte-hartzaileek beharrezko neurriak hartuko dituzte Erkidegoari zor zaion edozein diru-kopuru osorik itzuliko dela bermatzeko, Finantza Araudiko 54. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian eta garapen-arauetako 38. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraiki.

8. artikulua

Batzordeak eta Kontuen Auzitegiak beharrezko kontrol eta ikuskapenak egin beharko dituzte, beren funtzionario edo agenteen bidez, Erkidegoko funtsak behar bezala kudeatzen direla eta edozein iruzur edo irregulartasunen aurka Erkidegoaren finantza-interesak babesten direla bermatzeko. Horretarako, estatu kide parte-hartzaileek nahiz gainerako estatu parte-hartzaileek, baita

(1) C 323 EO, 2006.12.30ekoa, 1.or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

gauzatze-egitura espezializatuak ere, Batzordeak eta Kontuen Auzitegiak hala eskatzean, beharrezko dokumentu guztiak haientzako eskuragarri jarriko dituzte.

9. artikulua

Batzordeak beharrezko informazioa emango die Europako Parlamentuari, Europako Kontseiluari eta Kontuen Auzitegiari. Estatu kide parte-hartzaileei, eta gainerako estatu parte-hartzaileei eskatzen zaiei gauzatze-egitura espezializatuaren bitartez Batzordeari aurkezteko Europako Parlamentuak, Europako Kontseiluak eta Kontuen Auzitegiak eskatutako informazio osagarria, hain zuzen ere gauzatze-egitura espezializatuaren finantza-kudeaketari buruzkoa.

10. artikulua

Edozein estatu kidek parte hartu ahal izango du Eurostars programa bateratuan, 2. artikuluko e) eta h) arteko idatz-zatietan xedatutako irizpideei jarraiki.

11. artikulua

Edozein hirugarren estatuk parte hartuko du Eurostars programa bateratuan, 2. artikuluko a) eta h) arteko idatz-zatietan xedatutako irizpideei jarraiki, baldin eta parte-hartze hori beharrezko nazioarteko hitzarmen bidez arautzen bada, eta parte-hartze hori aldez aurretik onartzen badute Batzordeak nahiz estatu kide parte-hartzaileek nahiz gainerako estatu parte-hartzaileek.

12. artikulua

Erkidegoak Eurostars programan egin beharreko diru-ekarpenari buruzko baldintzak ezarri ahal izango ditu zazpigarren esparru-programara lotutako edozein estaturen partaidetzari dagokionez; edo Eurostars programa gauzatzeko ezinbestekoa bada, baita beste estatuen partaidetzari dagokionez ere, Erabaki honetan ezarritako arauen arabera, eta kasu bakoitzean ezarritako arau eta aplikazio-modalitateen arabera.

13. artikulua

1. Tratatuaren 173. artikuluan xedatutakoaren arabera, Europako Parlamentuan eta Kontseiluan aurkeztuko da zazpigarren esparru-programari buruzko urteko txostena. Bertan zehaztu beharko da Eurostars programa bateratuaren jarduerari buruzko txosten bat, gauzatze-egitura espezializatuak urtero Batzordeari aurkeztu beharreko txostenean oinarritutakoa.

2. Eurostars programa abian jarri eta bi urtera, Batzordeak epe erdiko ebaluazioa egingo du, I. eranskinean zehaztutako helburuak lortzeko egindako bidea balioesteko. Ebaluazio horretan integrazio zientifiko, administratibo eta finantzarioa ahalik eta gehien hobetzeko gomendioak emango ditu Batzordeak, eta I+G jardueran lan egiten duten enpresa txiki eta ertainek Eurostars programan sartzeko duten gaitasuna ebaluatuko du, baita enpresa horien lanaren kalitate eta eraginkortasuna ere. Batzordeak epe erdiko ebaluazioaren emaitzak jakinaraziko dizkio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Ebaluazioaz gain, gomendio eta oharak ere egingo ditu Batzordeak, eta baita Erabaki honetan egindako aldaketa-proposamenak ere.

3. Eurostars programa amaitu ondoren, programaren azken ebaluazioa egingo du Batzordeak. Azken ebaluazio horren emaitzak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztuko zaizkie.

14. artikulua

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hiru egunera jarriko da indarrean Erabaki hau.

15. artikulua

Estatu kideak dira Erabaki honen hartzaileak.

Estrasburgon egina, 2008ko uztailaren 9an.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea

H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean

Presidentea

J.-P. JOUYET

ANEXO I

DESCRIPCIÓN DE LOS OBJETIVOS Y ACTIVIDADES DEL PROGRAMA CONJUNTO EUROSTARS**I. Objetivos**

El objetivo de esta iniciativa presentada por los países miembros de Eureka consiste en crear el programa conjunto Eurostars, dedicado a las PYME que realizan actividades de I + D. Estas PYME se basan en el uso intensivo de conocimientos, la tecnología y la innovación, y desempeñan un papel esencial en el proceso de innovación. Se caracterizan por una acusada orientación a la clientela o al mercado y tienen como objetivo alcanzar una posición internacional consolidada promoviendo proyectos orientados al mercado y de elevado contenido innovador. Basándose en su propia capacidad de I + D, son capaces de desarrollar productos, procesos o servicios que presentan claras ventajas desde los puntos de vista de la innovación y la tecnología. Las empresas pueden variar en cuanto a tamaño o esfera de actividades, y pueden ser empresas establecidas con una trayectoria en la realización de actividades punteras de I + D orientadas a la aplicación o nuevas empresas de elevado potencial. La I + D constituye un componente esencial de su estrategia empresarial y planes comerciales. Estas empresas han de ser PYME en el sentido que figura en la Recomendación 2003/361/CE de la Comisión, de 6 de mayo de 2003, sobre la definición de microempresas, pequeñas y medianas empresas⁽¹⁾, y deberán dedicar una parte importante de su actividad a I + D. Los umbrales detallados de esta actividad se clarificarán de conformidad con el anexo II.

El programa conjunto Eurostars tiene por objeto apoyar a las PYME que realizan actividades de I + D:

1. creando un mecanismo de apoyo a la I + D europeo, de fácil acceso y sostenible, dirigido a ellas;
2. alentándolas a crear nuevas actividades económicas basadas en los resultados de la I + D y a introducir nuevos productos, procesos y servicios en el mercado más rápidamente de lo que sería posible de otro modo;
3. promoviendo su desarrollo tecnológico y empresarial, e internacionalización.

El programa conjunto Eurostars complementará los programas nacionales y de la Unión Europea existentes destinados a apoyar a las PYME que realizan actividades de I + D en su proceso de innovación.

Contribuirá a la competitividad, la innovación, el empleo, el cambio económico, el desarrollo sostenible y la protección del medio ambiente en Europa, así como a la consecución de los objetivos de Lisboa y Barcelona. Apoyará a través de su planteamiento ascendente (*bottom up*) las actividades de investigación, desarrollo y demostración llevadas a cabo por consorcios transnacionales dirigidos por PYME que realizan actividades de I + D en cooperación, cuando proceda, con organizaciones de investigación o grandes empresas.

El programa conjunto Eurostars tiene el propósito de aproximar y sincronizar los programas de investigación e innovación nacionales pertinentes para establecer un programa conjunto en el que se plasme la integración científica, administrativa y financiera, contribuyendo con ello de forma decisiva a la realización del EEI. La integración científica se logrará mediante la definición y la ejecución comunes de actividades en el marco del programa conjunto Eurostars. La integración administrativa se conseguirá a través del Secretariado de Eureka, que ejercerá la función de estructura de ejecución especializada. Su papel consistirá en administrar el programa conjunto Eurostars y supervisar su ejecución del modo que se detalla en el anexo II. La integración financiera conlleva que los Estados miembros participantes y los demás países participantes contribuyan efectivamente a la financiación del programa conjunto Eurostars, lo cual entraña en particular el compromiso de aportar los fondos necesarios, procedentes de los presupuestos nacionales asignados al programa conjunto Eurostars, a los participantes en los proyectos Eurostars seleccionados.

A más largo plazo, se deberá procurar con esta iniciativa intensificar la integración científica, administrativa y financiera. Los Estados miembros participantes y los demás países participantes deberán, como parte de la iniciativa, reforzar aún más dicha integración y eliminar los obstáculos legales y administrativos nacionales existentes que entorpecen la cooperación internacional.

II. Actividades

El programa conjunto Eurostars se centrará principalmente en actividades de I + D dirigidas por una o varias PYME que realicen actividades de I + D y estén establecidas en los Estados miembros participantes o en los demás países participantes. También podrán participar en el Programa organizaciones de investigación, universidades, otras PYME y grandes empresas. Las actividades de I + D pueden desarrollarse en el ámbito de la ciencia y la tecnología en su conjunto y:

1. se llevarán a cabo mediante proyectos transnacionales de varios socios en los que intervengan al menos dos participantes independientes de diferentes Estados miembros participantes y otros países participantes y que consistan en actividades de investigación, desarrollo tecnológico, demostración, formación y difusión;

⁽¹⁾ DO L 124 de 20.5.2003, p. 36.

2. su parte esencial será ejecutada por PYME que realizan actividades de I + D. Para cada proyecto Eurostars seleccionado, las PYME que realizan actividades de I + D deben aportar colectivamente la mayor parte de los costes totales relativos a dichas actividades de todos los participantes; en caso necesario, se podrá permitir la subcontratación de algunos aspectos menores de los proyectos;
3. se centrarán en la I + D orientados al mercado, tendrán una duración de corto a medio plazo y abordarán labores de I + D que constituyen un reto; las PYME habrán de demostrar que son capaces de explotar los resultados del proyecto en un plazo realista;
4. estarán dirigidas y coordinadas por una PYME participante que realice actividades de I + D, denominada «PYME principal».

Además, se subvencionarán hasta cierto límite las actividades de intermediación, promoción del programa y establecimiento de redes con el fin de promover el programa conjunto Eurostars y ampliar su repercusión. Tales actividades incluirán la organización de seminarios y el establecimiento de contactos con otros interesados tales como inversores y proveedores de servicios de gestión de los conocimientos.

III. Resultados finales que se espera obtener de la ejecución del Programa

El principal resultado final del programa conjunto Eurostars es un nuevo programa conjunto de investigación y desarrollo europeo destinado a las PYME que realizan actividades de I + D, con carácter ascendente (*bottom up*), basado en Eureka y cofinanciado por los programas nacionales de I + D y la Comunidad.

La estructura de ejecución especializada deberá presentar un informe anual en el que se explicará pormenorizadamente la ejecución del Programa (proceso de evaluación y selección, estadísticas sobre la composición del grupo de evaluadores, número de proyectos presentados y seleccionados para su financiación, uso de la financiación comunitaria, distribución de los fondos nacionales, tipo de participantes, estadísticas por países, actos de intermediación y actividades de difusión, etc.) y los avances hacia una mayor integración. La estructura de ejecución especializada realizará una evaluación *a posteriori* de la repercusión del Programa al final del programa conjunto Eurostars.

IV. Ejecución del Programa

La gestión del programa conjunto Eurostars correrá a cargo de la estructura de ejecución especializada. Los candidatos presentarán sus propuestas de forma centralizada a la estructura de ejecución especializada (ventanilla única), en respuesta a una convocatoria anual de propuestas centralizada y común con varias fechas de separación. Las propuestas de proyectos se evaluarán y seleccionarán de forma centralizada sobre la base de criterios de elegibilidad y evaluación transparentes y comunes, según un procedimiento en dos fases. En la primera fase, las propuestas serán evaluadas por al menos dos expertos independientes, que examinarán los aspectos técnicos y los relacionados con el mercado de la propuesta. Dichos expertos podrán realizar su labor a distancia. En la segunda fase, un grupo internacional de evaluación compuesto por expertos independientes procederá a la clasificación de las propuestas. La lista de clasificación de las propuestas, aprobada de forma centralizada, tendrá carácter vinculante a la hora de asignar los fondos procedentes de la contribución comunitaria y de los presupuestos nacionales destinados a los proyectos Eurostars. La estructura de ejecución especializada será responsable de supervisar los proyectos y se instaurarán procedimientos operativos comunes para gestionar el ciclo completo del proyecto. La estructura de ejecución especializada adoptará las medidas adecuadas para incentivar el reconocimiento de la contribución comunitaria al programa conjunto Eurostars, tanto al Programa en sí mismo como en relación con los proyectos individuales. Deberá promover una visibilidad adecuada para dicha contribución mediante el uso del logotipo comunitario en todo el material publicado, incluidas las publicaciones impresas y digitales, en relación con el programa conjunto Eurostars. La gestión administrativa de los participantes en proyectos Eurostars seleccionados correrá a cargo de sus respectivos programas nacionales.

V. Mecanismo de financiación

El programa conjunto Eurostars está cofinanciado por los Estados miembros participantes, los demás países participantes y la Comunidad. Los Estados miembros participantes y los demás países participantes han de elaborar un plan de financiación plurianual para participar en el programa conjunto Eurostars y contribuir a la cofinanciación de sus actividades. Las contribuciones nacionales podrán proceder de programas nacionales nuevos o ya existentes, siempre y cuando se atengan al carácter ascendente (*bottom up*) del programa conjunto Eurostars. Cualquiera de los Estados miembros participantes u otros países participantes podrá incrementar sus fondos nacionales asignados al programa conjunto Eurostars en cualquier momento de la ejecución del Programa.

Financiación del Programa

Se calcula que la contribución comunitaria al programa conjunto Eurostars, que será administrada por la estructura de ejecución especializada, corresponderá como máximo a una tercera parte de las contribuciones financieras efectivas de los Estados miembros participantes y los demás países participantes, con un límite máximo de 100 millones EUR.

La estructura de ejecución especializada utilizará el 4,5 % como máximo de la contribución financiera comunitaria como contribución a los costes generales de funcionamiento del programa conjunto Eurostars.

La contribución financiera comunitaria a los proyectos Eurostars seleccionados será transferida por la estructura de ejecución especializada a los organismos de financiación nacionales designados por los Estados miembros participantes y los demás países participantes sobre la base de un acuerdo que celebrarán los organismos de financiación nacionales y la estructura de ejecución especializada. Los organismos de financiación nacionales financiarán a aquellos participantes nacionales cuyas propuestas se seleccionen de forma centralizada y utilizarán también la estructura de ejecución especializada para aportar la contribución financiera comunitaria.

Financiación de proyectos Eurostars

La asignación de fondos de la contribución comunitaria y de los presupuestos nacionales destinados a los proyectos Eurostars seleccionados se efectuará según el orden de la lista de clasificación. La contribución financiera concedida a los participantes en estos proyectos se calculará de acuerdo con las normas de financiación de los programas nacionales participantes.

En caso de préstamos, se aplicará un cálculo estándar del equivalente bruto de subvención, habida cuenta de la intensidad de la bonificación de intereses y el porcentaje medio de fracaso del programa nacional correspondiente.

VI. Régimen de derechos de propiedad intelectual

La estructura de ejecución especializada aprobará, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 de la presente Decisión, la política del programa conjunto Eurostars en materia de propiedad intelectual. El objetivo de la política en materia de propiedad intelectual del programa conjunto Eurostars consiste en fomentar la creación de conocimientos, así como la explotación y divulgación de los resultados de los proyectos en favor del grupo destinatario de las PYME que realizan actividades de I + D. En este contexto, se utilizará como modelo el planteamiento adoptado en el Reglamento (CE) n° 1906/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de diciembre de 2006, por el que se establecen las normas de participación de empresas, centros de investigación y universidades en las acciones del séptimo programa marco, y las normas de difusión de los resultados de la investigación (2007-2013) (1).

(1) DO L 391 de 30.12.2006, p. 1.

ANEXO II

GOBERNANZA DEL PROGRAMA CONJUNTO EUROSTARS

En el sistema de gobernanza del programa conjunto Eurostars participarán cuatro órganos principales:

- 1) El «grupo de alto nivel de Eureka» estará compuesto por las personas designadas en calidad de representantes de alto nivel por los Estados miembros de Eureka y por un representante de la Comisión. Será responsable de la admisión de Estados miembros no participantes u otros países no participantes en el programa conjunto Eurostars, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 10 y 11 de la presente Decisión.
 - 2) El «grupo de alto nivel de Eurostars» estará compuesto por representantes de alto nivel de Eureka de los Estados miembros participantes y otros países participantes. La Comisión y los Estados miembros no participantes en el programa conjunto Eurostars se reservan la posibilidad de enviar representantes a sus reuniones en calidad de observadores. Su cometido consistirá en supervisar la ejecución del programa conjunto Eurostars y, más concretamente, deberá nombrar a los miembros del grupo consultivo de Eurostars, aprobar los procedimientos operativos para el funcionamiento del programa conjunto Eurostars, aprobar la programación y el presupuesto de las convocatorias, y aprobar la lista de clasificación de los proyectos Eurostars que se financiarán.
 - 3) El «grupo consultivo de Eurostars» estará compuesto por los coordinadores de proyectos nacionales de Eureka de los Estados miembros participantes y de otros países participantes en Eurostars y estará presidido por el Director del Secretariado de Eureka (ESE). El grupo consultivo de Eurostars asesorará al ESE en la ejecución del programa conjunto Eurostars y prestará asesoramiento sobre sus disposiciones de aplicación, tales como los procedimientos de financiación, el proceso de evaluación y selección, la sincronización entre los procedimientos centrales y nacionales y la supervisión de proyecto. Asesorará sobre la programación de las fechas de separación de la convocatoria de propuestas anual, así como sobre los progresos en la ejecución del programa conjunto, incluidos los avances hacia una mayor integración.
 - 4) El ESE ejercerá la función de estructura de ejecución especializada del programa conjunto Eurostars, actuando el Director de dicha Secretariado como representante legal del programa Eurostars. El ESE se encargará de la ejecución del programa conjunto Eurostars y, en particular, será responsable de lo siguiente:
 - elaboración del presupuesto de la convocatoria anual, organización centralizada de convocatorias comunes de propuestas y recepción de las propuestas de proyectos (ventanilla única),
 - organización centralizada de la comprobación de la elegibilidad y la evaluación de las propuestas de proyectos, de acuerdo con criterios de elegibilidad y evaluación comunes, organización centralizada de la selección de las propuestas de proyectos para su financiación, y supervisión y seguimiento de los proyectos,
 - recepción, distribución y supervisión de la contribución comunitaria,
 - recogida de las contabilidades relativas a la distribución de los fondos por los organismos de financiación de los Estados miembros participantes y los demás países participantes entre los participantes en proyectos Eurostars,
 - promoción del programa conjunto Eurostars,
 - presentación de informes al grupo de alto nivel de Eureka, al grupo de alto nivel de Eurostars y a la Comisión sobre el programa conjunto Eurostars, con indicación de los avances hacia una mayor integración,
 - información a la red Eureka sobre las actividades del programa conjunto Eurostars.
-